

583/2024 EBAZPENA, MARTXOAREN 5EKOA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZEINAREN BIDEZ INDARRIK GABE UZTEN BAITA GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIAREN 451/2022 EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGIN BAITZEN ADMINISTRARI LAGUNTZAILE LANPOSTU BAT BETETZEKO BEHIN BETIKO BARNE-MUGIKORTASUNAREN BIDEZ/ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN BIDEZ/ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIARI ATXIKITAKO ERIZAITZA ESKOLAN.

Osakidetza Giza Baliabideetako zuzendariaren 451/2022 Ebazpenaren bidez, administrari laguntzaile lanpostu bat betetzeko deialdia egin zen, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Erizaintza Eskolan, Behin Betiko Barne Mugikortasunaren/Aldi Baterako Barne Sustapenaren/Zerbitzu Eginkizunen bidez. Deialdia ebatzi gabe dago, eta Osakidetzaren webgunean argitaratu zen 2022ko ekainaren 1ean.

Erizaintzako Eskolako administrari laguntzaile lanpostuaren destinoaren ezaugarri eta deskribapenak akatsak izan zituen, eta zuzendu egin behar izan ziren. Deialdi hori indarrrik gabe utzi behar izan zen, hargatik eragotzi gabe etorkizunean egin beharreko deialdiak egitea, arauzko izapideen arabera egingo baitira.

451/2022 Ebazpenaren bidez hasitako deialdian parte hartzeko eskaera aurkeztu duten pertsonak ez dute eskuratutako eskubiderik, izapidetze-fasean gelditu delako eta, beraz, ezein eskatzailearen aldeko eskubiderik ez dagoelako. Eskatzaile horiek parte hartzeko beste eskabide bat aurkeztu ahal izango dute, egiten diren etorkizuneko deialdietan hala erabakitzen badute eta legez eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT


Lehenengoa.– Osakidetza Giza Baliabideetako zuzendariaren 451/2022 Ebazpena indargabetzea. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Erizaintza Eskolan administrari laguntzaile lanpostu bat betetzeko deialdia egin zen, Behin Betiko Barne Mugikortasunaren/Aldi Baterako Barne Sustapenaren/Zerbitzu Eginkizunen bidez.

Bigarrena.– Ebazpen hau jakinaraztea 451/2022 Ebazpenaren bidez hasitako deialdian eskaera aurkeztu duten pertsona guztiei.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzako web orrian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioko Osakidetzako Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu edo zuzenean jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 5a.



Izp.: MARIA ROSA PEREZ ESQUERDO

Osakidetzako Zuzendari Nagusia